

# BALIO PROPOSAMENA

Ez al zaizu inoiz gertatu etxean egotea ilea orrazten edo leuntzen, ateratzea kalera eta euria egitea? Edo agian, ileapaindegitik atera eta euria egitea? Guri bai, horregatik, produktu honek arazo hori guztiei konponbide errazak ematen dizkigu.

Alde batetik, segurtasuna ematen dizu zeure buruarengan, gainera zure ilea leun eta kizkurrik gabe mantentzea laguntzen du, egun euritsuetan eta hezeetan horrela mantentzeko erreztasuna emanez, zure ileaz ez kezkatuz.

Hau pertsona bakoitzaren estetika eta edertasunarekin lotuta dago; Lehen esan dugun bezala, ile kizkur edo busti bat izateko kezka kenduz.

Pertsonaren beharrak azkar asetzen duen produktua da, hau da, beharra izatean beherala konpontzen du. Bestalde, diseinu nahiko berezia eta modernoa du, bere ontzia euri tanta formakoa baita, eta largagailu bidezko kanporatze-aparatua du. Gainera, produktu hau lehenengo probatu duten pertsonak lortu duten esperientziak aipatzen du zein sinestezina den eta zein beharrezkoa den beren egunerokoan bihurtzea.

Gure produktua produktu likido bat da aukera ematen diguna ilea ez bustitzea. Produktua ile lehorrean bota behar da eta 12 ordu irauten ditu. Izan ere, produktua iletik kentzeko xanpu berezi bat dago. Hau da, azkenean ilea ez bustitzeko produktu bat izanez 12 orduak baino lehen dutxatu nahian ezingo genuke kendu, ura delako, baina xanpua aukera ematen digu hau kentzeko.

Beste aldetik, prezioari dagokionez denen esku dagoen produktu bat da, hau da, oso esukaragarria eta hainbat formatuetan aurki daitekeelako; Lehena bote txikikoa (250ml) 4,99 €-tan (xanpua barne hartu gabe). Bigarrena formatu handia da (400ml) 9,99 €-tan (xanpua barne). Azkenik, xanpua ere aurki dezakegu 2,45 €/ 500ml-ren truke.

Gehitu behar da lehen online erosketagatik bidalketak dohain direla. Gainera, bazkideek % 10eko deskontua izango dute, hau bakarrik lortu daiteke gure web-gune orrian erosten badute.

Amaitzeko, orain arte izan duen eraginkortasuna gehituko dugu. Egiaztagiri guztiak pozik sentitu dira produktu horrekin. Gainera, lehen esan dudan bezala, online zein denda fisikoan aurki daiteke. Druni-n, Primor-en eta Mercadona-n ere aurki ditzakegu.

## PRODUKTUA



# KOMIKIA

